


BERRIGARA

22 zenbakia

Jardun-elkartea, Bergara


1991, maiatzak 17



Jaixak:
Pasau jatzue
bixamona?



Hauteskundeak:
Nor ote hurrengo
Alkatea?



VI. Ipuin lehiaketa:
Malla altua
aurtengoan


**eusko
alkartasuna**

**JUAN MARI GARITANO MUÑOA
BERGARAKO ALKATETZARAKO
AURKEZTUA:**

EUSKO ALKARTASUNAK egin duen Gobernu
Munizipalerako programan, helburu printzipala, Bergatarren
nahia aurrera eramatea izango da.
Gure proiektua interesgarri iruditzen bazaizu eta gure lanean
sinesten baduzu, zure botoa eskatzen dizugu.





Jose Luis Elbore Unzuano
Ekoenaria



Anje Nurbaitz Añel
Ingenieria



Aitor Aguiñaga Guritana
Zuzendaria



Jesus Mari Guritana Sanchez
Fotografia



Xabier Latorre Etxebarria
Ingenieria



Jose Luis Iratxeñdi Jaure
Sociologia



Juan Kotiaurrutia Elbore
Teknologia



Jose Mari Arriola Guritana
Langileak



Gorko Berro Espelita
Langileak



Jonne Lizarralde Larrasa
Historia Lizenziatua



German Marzamorillara Ibarra
Langileak



Felix Askasibar Agerribai
Ingenieria



Maitte Ariztegi Larrainaga
Abokatuak



Jose Luis Luñe Larrainaga
Prentsa



Xabier Ariztegi Oñare
Ingenieria



Irigo Uriarte Etxabe
Langileak



Jose Domingo Cid Preito
Langileak



Tere Guridi Guridi
Ekoenaria



Juan Martin Elzapara Arregi
Ingenieria



Julian Aizolai Elorza
Jubilatuak

EMAN BOTOA HBri

HERRI BATASUNA



BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfona: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfona: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantrangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



24 OSTIRALA

- **Zinea:** "Matrimonio de conveniencia", 10.30etan.
- **Erakusketak:**
- Kultur Etxean Miguel Okinaren erretratu erakusketa.
- Nahikari tabernan, Edurne Erañaren Margolari taldearen erakusketa.
- **Kontzertuak:**
- Arrasaten, Plazan *Platero y Tú* eta *Baldin Bada*. 10etan.
- Arrasateko Kiroldegian *Hertzainak, Malaña* eta *Los Pichones*. 10etan.
- Oñatiko Kiroldegian *Toy Dolls* eta *Pikutara*. 10.30etan.
- **Bideo emanaldia:** Antzuolako zine aretoan *Negu Gorriak* taldeak Herrera de la Manchán emandako kontzertuaren bideoa; ondoren, "Gerra zikiña" bideoaren emanaldia. 8etan
- **Goardiako farmazia:** Egunez:Puy (Barrenkalen) Gaeuz: Corcuera (Arrasaten)

25 LARUNBATA

- **Zinea:** "Programado para matar"; 5 eta 7.30etan 10.30etan, berriz.. "Matri-

monio de conveniencia".

- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikuteko aukera: *Arteaga-Berna/Zabala-Urra; Bengoetxea IV-Errasti/Etxaniz-Maiz II*; eta bukatzeko *Intxaurren-Unsain/gabilondo-Andueza VI*.

• **Kontzertuak:**

• Txibiston, *Lisa Dominique* eta *Saxon*; 11etan.

• Bergarako Gaztetxean *Barracos, Orgon* eta *Dickchese*. 10.30etan.

• Aretxabaletako Gaztetxean *Quatro Clavos*. 10.30etan.

• Soraluzeko Gaztetxean *Soziedad Alkoholika*. 9etan.

• **Haur Olinpiadak:** Arrasateko Polikiroldegian, egun guztian zehar, Eskola arteko II Olinpiada jokatu-koda.

• **Goardiako farmazia:** Egunez:Guallar (San Anton) Gaeuz: Irizar (Arrasaten)

26 IGANDEA

- **Zinea:** "Matrimonio de conveniencia", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez:Guallar (San Anton) Gaeuz:Amezua (Arrasaten)

27 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Matrimonio de conveniencia", 7.30 eta 10.30etan.

- **Ikastaroak:** Sexualitate ikastaroa Kultur Etxean 4.30 etatik 6.30etara. Gaiak: *Gure gorputza; Menopausia eta sexualitatea; Bikoteen arteko harremanak; Maitasuna eta sexua*; eta azkenik, *Sexualitatea eta hirugarren adina*.
- **Goardiako farmazia:** Egunez:Estella (Matxiategi) Gaeuz: Ruiz (Arrasaten)

28 ASTEARTEA

- **Angiozar:** Pagomendi Elkartearen Angiozarko urbanismo planaren azalpena. 7.00etan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos (San Pedron) Gaeuz: Morales (Arrasaten)

29 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Egunez:Camacho(Oxirondo Enparantzan) Gaeuz: Azcuaga (Arrasaten)


30 OSTEGUNA

- **Goardiako farmazia:** Egunez:Puy (Barrenkalen) Gaeuz: Español (Arrasaten)



BERGARA BOLTSAK

- Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab..
- Denetariko konfekzio industrialia
- Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Adi, irakurle!

Joan zaizkigu Pazkua Jaiak. Egunerokora itzuli gara berriro.

Zer moduz, pasatu al zaizu ajea?

Eta zu, bidaiatzera irten zaren hori, gustatu al zaizkizu hortik zehar ezagutu dituzun bazterrak?

Gogorra dela gero berriz lanera bueltatzea, ezta? baina tira, irakurle, alaitu ezazu aurpegi hori; pentsa, adibidez, geroz eta egun gutxiago falta direla Bitorianabxo berriro Seminarioko teilatutik jeisten ikusteko...

Dagoeneko ostirala da. Joan zaizkigu Jaiak, eta gainera datorkigun asteburuak beste protagonista bat izango du, hau serioagoa:

Hauteskundeak!

Besteak beste, igandean bergararrok hurrengo lau urteetan herria nork eta nola zuzendu, gidatzen duen erabakiko dugu.

Jaiak eta Hauteskundeak, Hauteskundeak eta jaiak. Inolako zalantza barik egun hauetako Izen Propioak ditugu. Agian horrexegatik, honako ale hau bi gai horien inguruan moldatu dugu.

Adio, irakurle! Ondo izan.

ANDIZIV

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

**Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.**

Azulejo erakusketa.

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41

Faxa: 76 00 58 BERGARA



Tfnoa: 76 25 99

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan

Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA



• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69

Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46

Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68

Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42

Epaitegia 76 14 72

Kiroldegia 76 56 41

Igerilekuak 76 20 51

Kultur Etxea 76 44 46

IMI 76 55 49

• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82

Larrialdiak 76 12 94

Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59


Gipuzkoako ambulanz. 45 87 44

• SUHILTAILEAK

Zubillagan 78 28 00

Tiira ba!

Josu Okina





Marrazki lehiaketa

Arrakasta haundiz ospatu zen larunbat goizean haurrentzako XI. marrazki eta margo lehiaketa. Bergarako Kultur Ekintza Elkarteak antolatutako sariketan, 14 urtez azpiko 67 haurrek aurkeztu zituzten euren lanak, 10 margo lehiaketan eta 57 marrazkikoan. Margo lehiaketan, Ainhoa Garcia gertatu zen garaile 8 urterainokoentzako taldean; 8 urtetik 11raartekoan, Aitor Arzelus sailkatu zen lehenengo; 11 urtetik 14 urtera bitarteko taldean, berriz, Izar Rodriguez izan zen onena. Marrazki lehiaketari dagokionez, Eneko Egurenek irabazi zuen, 8 urterainoko taldean. Bigarren taldean (8-11 urte), Unai Azkarate gertatu zen garaile; eta hirugarren taldean (11-14 urte), Iñaki Larrañaga.

Palacagüinatik Bergarara

Jendez gainezka zegoen frontoia joan den ostiralean, *Carlos Mejia Godoy y los de Palacagüina* nikaraguarrek eskeinitako kontzertuan.

Ordubeteko atzerapenez (garraioen greba medio) igo ziren tablada gainera eta ordu t'erdia eman zuten nikaraguarrek, beren kanta ezagunenei errepaso emanaz.



Dantza sueltua

Kimetz eta Eneritz azkoitiarrak osatutako bikoteak irabazi zuen haurren Dantza Askatu XIV. Euskadiko Txapelketa. Jon eta Maite bergararrek bigarren postua eskuratu zuten eta Andoni eta Amaia hernaniarrak hirugarren sailkatu ziren. Jon Aranburu bergararrari, bestalde, dantzari onenaren saria eman zion epai mahiak.

Igandean jokaturako lehiaketan Euskal Herri osotik etorritako 27 bikotek hartu zuten parte. Goizeko kanporaketatik, fandango eta arin-arina dantzatu ondoren, 10 bikote onenak arratsaldeko finalerako sailkatu ziren. Ez zen alde haundirik egon aurreneko bikoteen artean, denek maila altua erakutsi zuten.

Txapeldunak (527 puntu) bigarren sailkatu zen bergarar bikoteari 4 puntu besterik ez zizkion atera. Aipagarria da halaber, laugarren postuan klasifikatu zen bikotea, Iker eta Olatzek osatutakoa, Bergarako zela.

Argi geratu dira, beraz, azken urteetan Bergarako Moises Azpiazu dantza eskolak egin duen lanaren fruituak.

□ Lapurretak

Joan den astean hainbat lapurreta izan ziren: An-tonin 150.000 pzta eta tabako kartoiak; Irrintzin 70.000 pzta eta tabako kartoiak; Raizabal gozotegian kazadora bat; eta Torrekuako garajeetan, mendi-bizikletak ostu zituzten.

□ Miguel Okina

Sekulako arrakasta lortu du Kultur Etxean egunotan zabaldu den Miguel Okinaren pintura erakusketak. Egunero 200 lagun inguru pasatu dira bertatik. Oraindik hurbildu ez bazarete, azkar ibili, igandean itxiko bait da.

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

FERNANDEZ



OIHAL PUSKAK
OIHALAK

Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22
San Antonio 3 Ibarra 2
BERGARA



Futbolin Txapelketa

Arrakasatatsuak gertatu ziren, Irizar Jauregiaren atzekaldean igande gauean jokaturako III LAM-OPEM sariko finalak. Bikoteka, Agustin eta Alex gastezitarrak, Pato eta Edu donostiarrak garaitu zituzten. Ritxar eta Txatarras donostiarrak hirugarren sailkatu ziren, Bergarako Agirre eta Javi bikoteari irabazi ondoren.

Banakako txapelketan, berriz, binakakoetan bigarren sailkatutako Edu, Fernando gasteiztarrari nagusitu zitzaion. Hirugarren eta laugarren postuetan, osera, Ritxar eta Riki aita-sembleak sailkatu ziren.

Aipatzeko da, txapelketan parte hartu duten 300 pertsonak, eta bergarrek egindako paper eskaxa.



Xake erregeari

Pazkuetan jokaturako Xake lau txapelketetan, Estatu eta Euskal Herriko talde onenak bildu ziren guren herrian. Larunbat goizean, Zabaltegiko dorrean, Bergarako Xake Elkartearen lokaletan, haurrentzako eskolarteko txapelketa jokatu zen. Bergarako ikastetxe ezberdinetako 30 haurren artean, Aranzadi Ikastolako 10 urteko Andoni Aperribai izan genuen garaile.

Arratsaldean, Udaleko Areto Nagusian, 5. Euskadiko taldeko neurketa azkarrak jokatu ziren. Euskal Herriko toki ezberdinetatik etorritako bost jokalariz osatutako 12 taldek hartu zuten parte. Bilboko *Rey Ardiz* peña izan zen onena. Bi huez gain, klubean arteko Norgehiagoka Azkarreko IV. Txapelketa jokatu zen. Durangoko *Larragoloeta* izan zen garaile, 16 talderen artean.

Igande goizean bestalde, XVIII. Bergara Hiria Taldekako Xake Txapelketa jokatu zen. Estatu osoko 16 talde onenetarikoak agertu ziren, eta Bilboko *Rey Ardiz* peña gertatu zen txapelidun. Bergarrek, merituzko 11. postua lortu zuten.



Herri Kirolak

Ikusle ugari bildu zituzten larunbat arratsaldean, Seminarioko patioan jokaturako Gipuzkoako Herri Kirol Txapelketek

Zazpi modalitate ezberdin antolatu ziren: harrijasotzea, horga jokuak (burdiari bueltak ematea), txinga erute, lohots biltzea, lasto altsatzea, ingude altsatzea eta saku karrerak. Hiru ordu pasatxo eman zuten partehartzaileek. Aipagarria, Pedro Salegi Itziarko harrijasotzaileak erakutsitako maisutasuna: zortzi arrobako zilindrikoari 41 jasoaldi egin zizkion 5 minututan. Tarte bereab, bestalde, 7 arrobako harri kubikoa 26 aldiz jaso zuen.



LARRAÑAGA

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Artekale 22

Tfnoa: 76 16 63


BERGARA

☐ Zauritu larririk ez

Manuel Paio 83 urteko bergarra, joan den astearte goizeko sokamuturrean, zezenak harrapatu ondoren zaurituta gertatu zen. Traumatismo gogorra jasan zuen eta buruan eta bizkarrean hainbat kolpe. Arratsaldean, berriz, zezenak Arruti harrapatu zuen eta DYAKoen asistentzia jaso behar izan zuen. Erakundeak jakitera eman duenez, ez da bestelako zauriturik egon.

☐ Fitipaldi Jaixetan?

Larunbat goizaldean, kotxe bat Ayastuyneko eskaparatean sartu zen. Autogidariak esan zuenez, tunel bat zelakoan, ezkerrean egin beharrean, zuzen jarraitu zuen kristalarekin topo egin arte. Ertzantzak alkoholemia kontrola egin zion arren, ez zuen positiborik eman. Gerora jakin ahal izan genuenez, ez zen, ez, Emerson Fitipaldi ezaguna; harek ez luke halako astakeriarik egingo!



Kalegarbitzaileak jo ta fuego

Jaixetako gauetan pilatzen diren zikinkeriak lehen bait lehen kendu behar direla eta, larunbatean hasi eta egunero egunero, asteazkenera arte, jo ta ke ibili dira Udaleko kale-garbitzaileak.

Lexia eta urez betetako hiru zisterna haundi ustu dituzte egunero, zikinkeria eta txizausainak desagertarazten. Narrasak ere bagera gero! Eskerrak, gehienek ondo pasa dezaten gutxi batzuk lan egiteko prest egoten direla; bestela...



Tabernak txukundu behar...

Amaitu dira aurtengo Pazkua jaiak. Bost egunetan zehar, gure herriko tabernak jendez gainezka izan ditugu. Eta igerri ere igertzen zen hori lokal hauetako zoru, pareta eta abarretan.

Gauzak horrela, festa bukatu bezain laister atsedinari ekin diote, egun hauek hainbat apainketa egiteko aprobetxatuz: argi berriak jarri, pintatu... Ariznoa, Oilagorra, Deportivo, Dixula, etab. eko kamareroek margolariei utzi diete txanda.

Ea lehen bait lehen bukatzen duten; honez gero, bateron batzuk faltan somatuko dituzte eta!

☐ Tren Txutxua

Jaietako ospakizunetatik ikusmin handiena sortarazi duenen artean herriko kale eta auzoetatik zehar ibili zen kilometroak 91ko tren aipatu daiteke. Herritarrez beteta ibili zen tren (Donostiakoa eta beste zenbait herritakoa bezalakoa) ilada handiak sortaraziz.

☐ Baltsa joitsiora


Sei baltsak hartu zuten parte Eguzkik antolatutako Deba ibaiaren III. Jeitsieran. Paulo eta meminek gidatutakoa iritsi zen lehenengo Santa Marina zubiko helmugara. Bigarren postuan Aitor eta Esteban sailkatu ziren. Baltsa orijinalenaren saria Mikel eta Arenazak jaso zuten, vikingo itxurako untziagatik.




Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a
 Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02




Zatoia
 Boutique
 BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14







BOTUA HBri !!



zergaitik?



Miren Aranzabal

Ongi izatean eta osasun zerbitzuan ardura handia izan duelako joan diren lau urte hauetan.



Jose Luis Arietaleanizbeasko "Uritxa"
Langileen interesak modu kontsekuentean defendatzen dituelako.



Josu Ruiz de Azua "Lairo"
Presoak askatzeko eta errefuxiatuak euskadin libre bizitzeko boto bat delako




Martin Galarraga

Urte guztian lana egiten duelako, ez bakarrik hauteskundeak direnean.



Marian Zubizarreta

Bergarak galduta zuen kultura maila berezkuratzea lortu duelako.



Jabi Lazkano
Ingurugiroaz kezkatutako dagolako eta Leizarango autobidearen arazoan irtenbide demokratiko baten alde dagoelako



Jose Mari Larrañaga

HBen ez duelako lekuri ez entxufismoak ezta korrupzioak.



Nerea Vicente

Juztizian oinarritutako bake baten alde lana egiten duelako.



Iñigo Gallastegi

Gazteen eskubideak benetan defendatzen dituen alderdi bakarra delako.



Txerra Ayastuy
Droga eta trafikanteen aurka, eta toxikomanoak sendatzearen alde lan handia egiten duelako.



Igor Oruesagasti

Ejertzito zapaltzaila guztien aurka dagoelako eta euskal gazte intsumisoen borroka benetan bultzatzen duelako.



Maite Larrañaga
Euskal Herri euskaldun baten alde nagoelako eta nere ustez abertzale eta ezkertiar alderdi bakarra delako.

ALKATERIK ONENA, HERRIA BIHOTZEAN ETA BURUAN DABENA



Maila altua Bergarako VI. Literatur Leihaketan

Juan Martin Elexpuru, Jon Iñaki Lasa, Miguel Angel Elkoroberezibar eta Agurtzane Arriolak osatutako epaimahaiaren eritziz, Bergarako VI. Literatur Leihaketan aurkeztutako lanek maila benetan altua erakutsi dute.

Partehartzaileen kopurua inoiz baino haundiagoa izan da maila guztietan; denetara, 300 lan inguru aurkeztu dira aurtengoan.

Bitxikeria bat; Helduen mailan, 6. Taldean, aurkez-

tutako guztiak gizonezkoak ziren. Emakumeak lotsati?

Direnak direla, guk Txapelketak emandakoari eutsiko diogu. Aldamenean sailkapenak ikusten dituzue, eta hurrengo bi orrialdeetan, berriaz, batetik Natalio Juaristi, partehartzaile edadetuaren lana aurkituko duzue; eta bestetik, Markel Lete eta Sergio Romero, irabazle gaztetxoenen obrak.

Irakurri, eta on egin daizuela gure harrobiak emandako fruituek.

Leihaketan sarituak

1. Taldea:

1. "Barraskilo pandila". Markel Lete.
2. "Neskak ez zekiela barre egiten". Irene Santamaría.
3. "Katua eta txakurra". Alinhua García.

2. Taldea:

1. "Nataxa". Sergio Romero.
2. "Behi mirezgarria". Oihan Vega.
3. "Igelak eta umeak". Olnatz Urbilondo.

3. Taldea:

1. "Joxe Mari kakalarri". Maite Mujika.
2. "Errotaria eta bere ingurua". Igone Ibarbia.
3. "Martin arrantzalea". Jon Alvarez.

4. Taldea:

1. "Fermintxoren irratia". Eurne Azuara.
2. "Itzulerarik gabeko bidaia". Oihier Bolibar.
3. "Oroitzapenetan murgildurik". Iñigo Clarsolo.

5. Taldea:

1. "Han non loreak oinazeen jabo eta heriotzari dantzatu ohi zaio". Patricia Perez.
2. "Norbaiten barnetik". María Gomez.
3. "Zergatik". Jon Sanchez.

6. Taldea:

1. "Laugarren galeriako bakardadetik". Jon Andueza.
2. "Ehiztari bikainak". Natalio Juaristi.
3. "Bi eta bi lau, sardina bakalau". Jon Altuna.

Akzesitak:

- "Ora et labora". Juan Luis Mendizabal.
"Neure puntuak". Roman Uriarte.

M U G I C A

BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

ARRANO



TABERNA

Kruz Gallastegi

BERGARA

ESPOLON



School of English
BERGARA

Ingleseko ikastaro intentsiboak
haur eta nagusientzat.
Egunean bi ordu t'erdi edo hiru,
goiz edo atsaldez.

Deitu asteleheneetik ostiralera 10etatik 12 t'erdietara
76 03 53 Tfno.ra

Ibargarai 31, Barruko plaza. BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12. BERGARA

N i naiz. Natalio Juaristi. Bergara honetan 1912ko azaroaren 30ean munduratu. Beti, neure bizitza guztian izan naiz euskaltzalea, bate-re buru argikua ez, egia esateko.

Juan dan udazkenean, Osintxuarrendako ipuina idatzi nuen. Gure Altonetako zaintzalleak irakurri zun, eta emateko asistenta sozialari. Honi gustatu zitzaizolako Donostian zeuan lehia- ketara bialdu zun. Halako baten handik delhadarra, halako lekutan aurkeztu behar nintzela, halako egunetan. Eta jun nintzan. Hirurogel bat buru-zuri batu gifian. Gehlenak, Gastelaniatzko lanak bialdurik; zoritxarrez, gutxi gifian euskeraz blaldurikoak eta horregatik izandu nintzan saritua. Dana dala, idazten jarraitzeko Indarra eman zidan.



- Eskerrik asko, banoa lasterka antzian etxe aldera pozik, zerbait bota detanien (erakutsiaz oilagorra eta birigarrua), gaurkoan nahikoa suerte izan det. Agur eta eskerrik asko.

Bergaratu bezin laister, tope egin zuen Mixo negoziante haundiarekin. Jakin beharra berea...

- Zer bota dek ba Bonbulu gaurkoan...?

- Nik... tiro batekin bi txori.

Mixo horrek eskutan harturik botatako biak...

- Honek alkarrekin ez dituk ibiltzen eta oso zaila dek tiro batekin botatzea. Hori sartuok beste bati.

- Serio, tiro korriduan punta batetik bestera.

Kaxintori orduan oroitu zitzaion, Mixo hau zala salerosle bihurri bat, esan zion nola Koroako baserrian, ura eran zuala pitxar batetik zirudiela urrezkua. Harek ematen zuala goxotasuna ezpainetan.

- Jakina, urrezkua bazan...

- Uste diat baietz eta haiek ez zekiten zer duten.

Negoziante haundi honek, Bonbuluri ezer esan gabe, harturik berrogei duro zilarretan, gerra aurrekoak bere pixu ederrarekin, heldu da koroako baserri hortara halako baten, ziur jakin bare hura zela. Jotzen du atea eta irtezen du amonatxo berberak.

- Arratsaldeon amama, egarri naiz... Emango al dirazu ur puxka bat?

Amonatxo horrek...

- Jesus... gaur gizartian egarri haundia dago. Goizean beste ehiztari bat etorri da egarriz.

Andratxua barruratzen da ur bila. Gure sal-erosle horrek:

- Ondo etorri nauk, zalan-tzan nenguan baina... ongi.

Ekarri dio eta trago haundi bat egin ondoren, goibel gizona... halako baten ausartzen da esatera...

- Beste pitxar bat badezute...

Etxeko-andre horrek:

- Hau garbia dago, geok ere hemendik eraten degu. Gurian ez da beste pitxarrik.

Egin zun Mixok tragotxo bat gehiago eta eskerrak emanaz, alde egiten du gure trafikantiak.

- Kaxinto Bonbulu horrek jo jostak ederra eta nik, tonto-tonto, dena iruntsi. Jakin-an nolako gezurtia dan, baina hain ondo tajututa esaten dik, nork ematen dio antz benetan ari dan ehiztari trolero horri.

Orain diru pixu honekin joari herriraino. Bueno, me-rezi banuan puxkat nik... baserritarra engainatzeko asmu-an eta Kaxintok neu har-rapatu, ez-jakin bat banintz bezela.

Horrek ni ezagutu, nolako sal-eroslea naizen eta orain bero honekin juari Bergararaino karga hau gainean de-kala... Hola izaten dituk gure negoziuak, gutxitan irabazi eta gehienetan galdu...

Kaxinto trolero galgarri horregatik...

Ehiztari bikainak (1. atala)

Oso gizon ontzat zan ezagaturik, gure Kaxinto Bonbulu, batez ere, ehiztari-en artian.

Egun batian juan zan Intxorta edo Igokunde aldera zerbait ekartzeko asmotan. Ibili haundi bat egin ondoren Partaitti aldean agertu omen zitzaion magal baten gainean birigarro bat eta pixka bat gorago oilagorra. Gizon hau hain ona ei zan eskopetarekin eta bota ditu biak.

Poz-pozik bazetorren etxe aldera eta egarriturik jo

zuen Koroako baserrian atea. Urten zuan amonatxo batek.

- Zer nahi duzu amonatxo?

- Ur trago bat egingo nuke, ematen badirazu.

- Bai, gizona, bai... Zerbait gehiago nahi badezu ere...

Ekarri dio lurrezko pitxar baten eta egin omen zun trago haundi bat.

- Hau ur goxoa, pitxar hontatik gainera...

- Lurrezko ontzitik beti goxogo izaten da.

**Beheko
Taberna**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Santiveri ETXEA

GERTATUTAKO JANGAIK
ETA ERREGIMENEOAK

Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83
BERGARA

URRATS
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA



Kaixo. Ni Markel naiz. Bigarren mailan nabil. Niri futbola gustatzen zait.

Nik zortzi urte dauzkat eta lbargarain bizi naiz. Ipuin hau egin nuen idaztea gustatzen zaidalako.

Barraskilo Pandila

Behin batean barraskilo pandila bat zegoen nire etxe aurrean eta nire amari deitu nion. Ama! Ama! Begiratu nolako barraskilo pila dagoen lurrean. Etxera eraman ahal ditzaket barraskiloak? Eta amak erantzun zidan, bai. Eta letxuga hostoak eman nizkien jateko eta ura edateko, baina barraskiloak bere etxeetatik ez ziren ateratzen. Eta pentsatu nuen: zer emango diet jateko? Goseak hilgo dira. Ama zer gustatzen zaie barraskiloeci? Zergaitik ez dira letxuga jatera ateratzen? Emango al diet azukrea? Eta amak erantzun zidan: pentsatzen dut barraskilo hauek beldurtuta daudela. Agian, bakarrik utzi behar zenituzke. Eta nik pentsatu nuen apur batean gelatik alde egin eta barraskiloak bakarrik utzi. Handik denbora batera isil-isilik sartu nintzan berriro ikusteko letxuga jan zuten. Baina, ama! ama! barraskiloak ez daude. Hasi nintzen danean begira eta konturatu nintzen mokoekin egindako bidea zegoela gelan. Bideari jarraitu nion eta, balkoia zabalik zegoen. Barraskiloak mendira joan dira berriro. Itxura denez, ez zaie gustatu nire etxea, nahiago dute mendian harri artean bizi.



Hola. Sergio Romero naiz. 9 urte ditut. 1981eko urriaren 9an jaio nintzen eta Bergaran bizi naiz, Masterrekan. Aranzadi ikastolan nago 4. mailan. Lehenengo aldiz bialdu dut ipun bat lehiaketa honetara.

Natatxa

Behin Japoneko herri txiki batetan Natatxa izeneko neska bat bizi zen bere anai-arrebekin.

Lorontziak egiten zituen eta egunero 5.000 pezeta irabazten zituen lanean. Lorontziak errez saltzen zuen egunean zehar.

Egun batez lorontzi erraldoi bat egin zuen eta esmeraldekin gainera. Bere herrian enperadorerik ez zegoen baina Japoneko soldau batek Japoneko enperadoreari albiste hau momentuan esan zion. Harrituta gelditu zen enperadorea.


Handik bost minutura enperadoreak esan zuen:

- Neska hori ekarri hona! Niretzat egingo du lan jauregian.
- Ongi da enperadore jauna.

Handik hamar minututara Natatxaren etxean agertu zen soldatua eta dena azaldu zion. Natatxa enperadorearen jauregira eraman zuten. Enperadoreak horrela hitzegin zion Natatxari:

- Natatxa, sentitzen dut baina niretzako egingo duzu lan.
- Ah!!!! Ezta pentsatu ere enperadore jauna!
- Eta korrika ihes egin zuen jauregitik.
- Rufino soldau! Rufino!
- Zer nahi duzu enperadore jauna?
- Segitu Natatxari, ihes egin du eta.

Horrela harrapatu egin zuen Natatxa eta espetxean sartu. Orduan espetxera bere lorontzi erraldoia eraman zuen eta oso pozik jarri zen Natatxa. Jarraian lorontzi barruan sartu zen inoiz agertu ez zelarik.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Udal Hauteskundeak igandean

Datorren igandean, besteak beste, bergarrok hurrengo lau urteetan Udaletxea zuzendu, gidatuko duten hamazazpi zinegotziak aukeratuko ditugu, tartean baita Alkatea ere. 1979an gerra osteko lehenengo Udal Hauteskunde demokratikoak egin zirenetik, makina bat gorabehera politiko bizi izan ditugu herrian.

Hona hemen aurreko hiru legealdi eta aurki hasiko den laugarrenaren inguruan prestatu dugun lana. Ez dugu analisi politiko sakon bezala planteatu, datu, gertakizun eta hainbat bitxikeriaren bilduma bezala baizik.

Atzean gelditu dira gerra aurretiko garaiak, Industriegizon, komertzianta eta baserrietako ugazabek euren langile, enplegatu edota errenteroei presio bidez botua erosten zieteneko egunak.

Orduko kronikek diotenez, Hauteskunde egunean alderdiek 25 edota 50 pzta. agintzen zituzten euren aldeko botuagatik.

Aldatu dira gauzak, bai.

Gerra osteko legealdiak

Gerra osteko lehenengo hauteskundeak 1979an egin

ziren. EAJ izan genuen garaile, erraz gainera. 17tik 9 zinegotzi eskuratu zituen. HBk 5, eta EE, PSOE eta EMKk bana.

1983an, antzeko emaitzak izan genituen. EAJk gehiago absolutoa eskuratu zuen berrito, 17tik 9 zinegotzi. HBk 4, PSOEk 2, eta EE eta Ezker Batuak-ek bana lortu zuten.

Hauteskunde haietan lortu zuen EAJk orain arteko botu kopuruaren errekorra: 3.935 botu, hain zuzen.

1987an, EAJ eta EAren arteko banaketa medio, ze-



haro aldatu ziren gauzak. HB izan genuen garaile, 7 zinegotzirekin. EAJk 5, EAk 3, eta EE eta PSOEek 1, izan zen orduko banaketa.

1991ko Alkategalak

Sei zerrenda aurkeztuko dira igandean Bergaran; sei Alkategai, beraz.

EAJ (Victoriano Gallastegi), EA (Juan Mari Garitano), EE (Albaro Esparza) eta EMK-LKIk (Jose Ramon Sebal) zerrendaburu berriak aurkezten dituzte.

HB (Jose Luis Elkoro) eta PSOEek (Javier Zendoia), berriz, aurreko legealdietako Alkategaiekin segitzen dute.

Gazteena, 38 urte dituen Albaro Esparza (EE) dugu; edadetuena, berriz, 56 dituen Jose Luis Elkoro (HB).

Seiek ere lanbide ezberdinak dituzte. Elkoro industri-

gizona da, Gallastegi Biltzikoko gerentea, Esparza Arrasateko Udaleko administraria, Garitano langile autonomoa, Zendoia Torunsako langilea, eta Sebal, azkenik, Tavesako langilea.

1991ko zinegotzilgalak

Alderdi bakoitzak, 17 pertsonaz osatutako zerrendak aurkezten ditu.

Hauetan begiraturaz gero, azken legealdian zinegotzi moduan egon diren aurpegi ezagun batzuk somatzen ditugu faltan.

EAJko Imanol Bolinaga eta Gregorio Muruamendiarrak, EAko Albaro Gallastegi, eta HBko Luis Mari Alberdi eta Maria Pilar Unamuno, hain zuzen, ez dira hautagai moduan agertuko.

EAKo Felix Unamunok ere zail xamarra izango du

BOLINTXO
KIROLA EGITEKO
BEHAR DEN
GUZTIA.
IBARGARAI 10,
Tfn: 76 38 32
BERGARA

KIZKUR
Ileapaindegia
Solariuma
Botu 51 Tfn: 76 50 32 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOYO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Mabiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Udaletxera bueltatzea, zerrendan 16. azaltzen bait da.

Bitxikeria batzuk

Zinegotzigai gazteena zein den? EMKko Alex Gardoki. Edadetuena? EAko Josu Oregi.

PSOEren zerrendan, Jaber Zendoiarekin batera 5. postuan bere emaztea azaltzen da, Begoña Urbistondo hain zuzen.

Urteetan zehar Udaletxean hainbat kargu bete dituen Imanol Bolinaga oraingoan EAJren zerrendatan azaltzen ez bada, bere seme Imanolek hartuko dio erreleboa, EMK-LKIREkin bada ere.

Eta beste bitxikeria bat. 1979an EMKrekin, eta 83an Ezker Batuak-ekin zinegotzi izandako Jesus Mari Garitano, igandekoan HBren zerrendan 4. joango da.

Emakume gutxi


Amaitu berri den legealdian, 17 zinegotzitik bi bakarrik izan dira emakumeak: HBko Anaje Narbaiza eta Maria Pilar Unamuno.

Dirudienez, gainera, hurrengo legealdian kopuru hori ez da asko haundituko.

HBk hiru emakume aurkezten ditu zerrendan; EAJk beste hiru.

EA, EE eta EMK-LKI eta PSOEek bina emakume aurkezten dituzte.

Guztira 14. Dena den, eta zein postutan agertzen diren



kontutan hartuta, gehienek ez dute aukeratuak izateko posibiliterik izango.

HBn Anaje Narbaiza izango da lehenengo emakumea, zerrendaren bigarren tokian; EAn Kontxi Irizar, bigarren; EEn Maria Dolores Unamuno, hirugarren; EMK-LKIn Milagros Retes, laugarren lekuan; PSOEen Begoña Urbistondo, bostgarren; eta EAJn, azkenik, Milagros Lette, zerrendaren bederatzigarren postuan.

Datu horiek eskuan, beraz, antza denez Bergaran gizon-nezkoak izango ditugu bizitza politikoaren protagonista nagusiak.

Gauzak estu

Azkenengo kontzejala zeinek eraman dozena bat botoren gorabeheran egon ohi da. Orain arte, kontua estuen 1983an egon zen; HBri 18 boto falta izan zitzaizkion Ezker Batuak-i zinegotzia kentzeko.

Botoetatik kontzejaletara

Alderdi bakoitzak lortzen dituen botuen arabera zenbat kontzejal lortuko dituen jakitea ez da gauza zaila. Horretarako, *D'Hont legea* aplikatzen da. Lege hori azalatzeko, adibide baten bidez saiaturko gara.

Demagun lau alderdi ditugula, eta euren artean 7 zinegotzi banatu behar dituztela. Ak 1230 botu lortu ditu; Bk 950; Dk 650 eta Ek 450.

Kopuru horiek 1, 2, 3... gatik zatitu, eta 7 zatidura edo koziante haundienak hartuko ditugu.

Gure kasuan, zatidura haundiena 1230 da (A taldearena); bigarren haundiena 950 (Brena); hirugarrena 615 (Aren botoak zati bi); laugarrena 600 (Drena); bostgarrena 475 (Bren botoak zati bi); seigarrena 450 (Erena); eta zazpigarren eta azkena 410 (Aren botoak zati hiru).

Gauzak horrela, kasu honetan Ak hiru zinegotzi lortuko lituzke, Bk bi, eta D eta Ek bana.

	Botoak / 1	Bot0ak / 2	Botuak / 3
A (1230)	1230 (1)	615 (3)	410 (7)
B (950)	950 (2)	475 (5)	316,6
D (600)	600 (4)	300	200
E (450)	450 (6)	225	150



Jatetxea

AURREZ ESKATUTAKO
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21

ayastury
Jantzidenda

Barrenkale 26
Tfnoa: 76 11 31
BERGARA


Alkategaien hitzetan

Oraingo honetan, eta igandeko Udal Hauteskundeen atarian, bertan aurkeztuko diren Alkategaiekin jarri gara harremanetan, euren eritzia jaso asmoz. Horretarako, bi galdera luzatu dizkiegu:

1. Alkatetzara heltzen bazara, zer da egingo duzun lehenengo gauza?

2. Zer ez luke Alkate batek inoiz egin behar?

Guztiei aukera eta espazio berdina eskaini begenien ere, ikusten duzuen bezala denetariko erantzunak jaso ditugu; batzuk luzeak, besteak ez hainbeste.




Jose Luis Elkoro



1. Orain dela lau urte bezala, zinegotzi guztiak udaletxeko gobernuan partehartzera gonbidatuko nituzke.

2. Inork ez lituzke kasu egin gabe utzi beharko edozein pertsona edo taldek eginiko eskakizunak.




Victoriano Gallastegi



1. Herrian gure alderdiak banatu duen programaren 17 puntuak indarrean sartzten saiatuko naiz.

2. Herritarren borondatearen kontra jokatu.



Jose Ramon Sebal



1. Zakarrontzira botako genituzke Udalak arautzen dituzten lege murriztaileak, Udalaren autonomia politikoa eta ekonomikoa mugatzen bait dituzte, eta boteredunek nahi dutenean oso erraz eskatzen dituzte.

2. Alkatea eta Udala ezin dira gestio hutsera mugatu. Ez dute murriztu behar herritarren partehartzea, eta ez dute jendea isilerazi behar kontrako lege edo beste jardunbi-deekin.

MAKAILO

Makailo **ETXEA**
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "
PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA




Juan Mari Garitano



1. Udalaren momentuko egoera zehatz ezagutzeko "auditoria" bat egingo nuke lehendabizi. Datuok ezagutu ondoren ekingo nioke lanari, Udala herritar guztiok pagatutako zergei esker bizi dela kontutan harturik. Zuhurtasun eta arretaz egindako politika jarraituko genuke, gastu fijoak eta eskaintako zerbitzuak parean jarritz eta gauregungo bizi-mailara egokituz. Lanpostu berriak bultzatu eta sortzeko batzorde berri bat osatuko nuke, prestakuntza izan eta aktibitate bat martxan jarri nahi dutenei laguntzeko; eta baita eginahi horiek aurrera eramateko dinamizatzaile bat ere. Batzorde honek diru-partida berezia izango luke Udal-aurrekontuetan, eta arrisku-kreditoetarako diru-baltzuak sortuko nituzke. Industrialdeen antzerako beste pabiloi batzu ere bultzatuko nituzke. Beti ere Udalak eskaini ditzakeen laguntzak oso kontutan izanik.

2. Ez nuke alderdikeriako politikarik egingo, eta ezta Bergarako inor baztertu edo marginatzen duenik.




Albaro Esparza




1. Lehenengo gauza: herriko jaiak eta hauteskundeak pasa ondoren fatxadak garbitu, eta Plenoan onartuta dagoen ordenantza aurrerantzean bete. Gaur egun ingurugiroari begira oso kontutan izan beharrekoa da ekologismoa aldarrikatu ondoren geure herriko kaleak zikin-zikin eginda uzten ditugula, oraintxe dauden bezala, eta hori arautzeko Ordenantza bat onartu baldin badugu bete beharra daukagu, Bergara herri garbi eta ederra izan dezagun. Gainera, Udalak onartutako Ordenantzak geuk bete ezean, ze eragin izan dezakegu herritarrengan hauek bete ditzaten? Guzti honengatik, eta gai honekiko daukadan sentiberatasun bereziagatik hauxe litzateke lehendabizi egingo nukeena, herriaren itxura ona mantendu eta herriko talde guztiek ere arauak bete ditzaten zaindu.

2. Plenoan beste alderdi politiko guzti-ek, gehiengoa izanik, onartutako arau eta iharduerak bete gabe uztea. Hau oso larria da, eta karguan jarraitzeko aginpidea ere galerazi dezake. Alkateak ezin du bere alderdiarentzako bakarrik lan egin, bergarar guztien ongizatea jokoan bait dago.



Jabier Zendoia



1. Lehenengo egingo nukeen gauza babes ofizialeko 400 etxebizitza egiteko lurra erostea. Etxebizitzok ez lukete 7.000.000 pza.tik gora balio izango. Etxe horietako batzuk, % 25a edo, alkilatzeke izango lirateke. Era berean, gazteentzako apartamentuak ere eraikiko genituzke, 50 m2koak.

2. Ez nuke onartuko Udaletzeko balkoi eta ormetan kartel, pankarta eta pintadarik egiterik eta gauza bera herriko beste edifizioetan.

Horrez gain ez nituzke diskriminatuko erdaldunak Udaleko lanpostuetan eta horren ordezkari euskara ikasteko bide egokiak emango nizkieke.

BERROYA, E. A.


INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2

Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

A. ZANGITU

Paper pintatuak-pinturak

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ONENA

TINDATEGIA

BARRENKALE 29 BERGARA

**ETXE-
-AUNDI**

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Zer eskatuko zenioke Bergarako hurrengo Alkateari?



Mari Karmen Serna
40 urte

Kaleko seguritatea indartzea.
Komertziantzea naiz, eta Ertzaina
gehiago ibiltzea nahiko nuke, beti
beldurrez ez egoteko.



Tomas Castelo
34 urte

Bergara garbiago bat.
Beharrean daudenei laguntza
eskaini, eta orokorrean, bergarar
guztion bizimodua hobetzen
saiaetzea.



Jabier Arrieta
27 urte

Bide eta errepedeak konpontzea,
kaka bat eginda bait daude.



Manoli Rodriguez
58 urte

Herria garbiago eta ordenatuagoa
edukitzea. Herriaz benetan
arduratzeta. Eta festa egin behar
denean aurrera, baina neurri baten
barrian.

SANTOS - IRRATI-TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA

KABIA

Erretegia -taberna

Zubiaurre 23 - Tfnoa: 76 23 08
BERGARA



KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA



Konfliktoa EHUn

Egun gutxi faltatzen dira kurtsoa amaitzeko Euskal Herriko Unibertsitatean, eta inoiz ez bezala, ikasleok, eta euren artean aurkitzen naiz ni, oso beltza ikusten dugu etorkizuna. Ikasturte iskanbilatsua izan dugu EHUn.


Errektorego eta ikasle asoziatuen arteko gatazka dela medio, ikasleak izan gara gehien galdu dugunak, batzuk beraien azterketak zalantzan ikusi arte.

Arazo honen errudunak bilatzeko orduan, esku guztiak leku berdinerara zuzentzen dira: errektoregoa, Emilio Barberak, eta berak zuzentzen duen ekipoak, jokaera aldaezin bat erabiliz, trabak besterik ez dute jarri konfliktoa konpontzeko.

Kaleratutako 80 irakasleek arrazoia duten ez dakit, baina gauza bat argi dago: beraiek izan dira mahai baten inguruan hitzegiteko proposamena bultzatu duten bakarrak. Azken hilabeteetan herrialde bakoitzeko sententzia judizialak irretzen joan diren bitartean, argi ea garbi ikusi da Barbera jaunaren talantea: beraren aurkako sententzia (irakasleen aldekoa) irretzerakoan errekurtsioa ezartzen du.

Bitartean, nahiz eta instantzia ezberdinak negoziatziora bultzatu eta bere burua bitarteko bezala jarri (arartekoa, Bilboko abokatu kolegioa, Eusko Jaurlaritz), nahiz eta ikasleen % 90k Barberaren dimisioa eskatu, badirudi honek Valenciara joateko asmoa ez duenik. Ea ikasleok, (eta hauen artean bergaratar askok) noiz arte aguantatu behar dugun.

Mikel Lizarralde



Ango eta emengo akatsak

Aspaldidanik utzia nengon euskal idazketari, ez leengo zaletasuna galdu detalako, gure garaiko idazkeratik gaurko idazkerara alde aundia arkitzen nuelako baizik. Gure garaian aalik euskera garbiena erabiltea zitzaigun legezko; gaur berriz, erderari loturiko euskera irakurtzen da zelabaiteko "modak" obeagotzat arturik.

Adibidez, *Duela* hitza darabilte itzetik ortzera esakera obeagotzat arturik. *Duela bost urte* entzun det gaur bertan. *Duela?* Nork *duela?* Eta, bost urte? *Duela* esatera, bat izango da eta bost izatera direla esan beharko da. Badakit ipar-aldean erabilten dan esakera dala baina zer dala-ta ango akatsei leku eman...

Beste itz bat *trebesia* da. *Zergatik* ez *trebetasuna?* *Tasun* atzizki edo sufijo ori euskerari dagokiona da eta betidanik erabili izan deguna. *Trebesia, sia* atzizkia erderari dagokiona da naiz ta euskeran ere oso sartua dagoen, batez ere gure Bergara orretan. Gogoan daukat zein "xelebre" erabili oi zan gure garaian; eztakit orain entzuten dan orrelakorik:

Aleman gizonaren emaztea aleman *asia*... Pio izeneko gizonaren emaztea *Piosia*... Txurroaren emaztea txurro *rosia*... eta abar. Emen bai ezin sartu ditekela gure atzizki *tasun* ori.

Martin Gallastegi



LASA
JATETXEA

Bkurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA



76 20 61



GAZTELY S.A.

BURDINDEGIA

MINTEGI 1 Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

BOURBON

MERZERIA - LENZERIA

D. Irala 5 Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

Galderak egiteko aukera

Hemendik aurrera orrialde honetan atari berri bati emango diogu hasiera. Bertan irakurleok egiten dizkiguzuen galderak erantzuten saiatuko gara. Egizkiguzuzuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantxa nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazola norik duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu, kartaz zein telefonoz, eta gu ahaleginduko gara lehenbailehen erantzun egokia ematen.

7. Zenbatekoa da 1991n automobil bakoltzaren zirkulazio zerga?

Automobilaren zirkulazio zerga, kotxeak daukan potentzia fiskala kontutan hartuta jartzen da.

Potentzia fiskalaren eta

zilindradaren arteko harremana ez da beti zuzena izaten; horregatik, hemen emango ditugun datuek aldaketatxo batzuk izan ditzakete. Abisu hori emanik, beraz, hona hemen aurtengo tasak:

- 900 zm3 baino gutxiagokoentzat, 2.170 pzta.
- 900 eta 1699 zm3 artekoentzat, 5.860 pzta.
- 1.700 eta 2.299 zm3 artekoentzat, 12.370 pzta.
- Eta 2.300 zm3tik gora-koentzat, azkenik, zerga 15.405 pzta.koa da.

Autoa aurtan erosi baduzu, erosi zenuen egunetik urte amaiera artekoa ordaindu behar duzu, ez urte osokoa. Baja eman ezkerore ere, orduartekoa kobratzen da. Beraz, orain urte osokoa ordaindu eta urtea amaitu aurretik baja eman ezkerore, baja eman duzunik aurrerako zatia buel-tatu egiten da.

A, eta gogoratu ordaintzeko epea maiatzaren 1era arte dela, eta handik aurrera %20ko errekaruarekin ordaindu beharko dela.

(Informazioa: Udaleko Kontuhartzailletza Zerbitzua)



8. Jabe-elkarte (comunidad de propietarios) batetan 12 bizilagun gara eta aspalditik teilatua konpondu nahian gabiltza balna gutariko batek ez du nahi. Zer egin dezakegu? Halako erabakiak nola hartzen dira?

Legeak dioenez, jabe guztiak dute etxean egin beharreko konponketak ordaintzeko obligazioa. Guztiak ordaindu behar dute aurrez erabaki den kuota.

Horretarako, nahiko da bizilagunen gehiengoak erabaki hori hartzea eta gehiengo horrek partizipazio-kuoten

gehiengo ere ordezkatzeara.

Norbaitek kuota hori ordaindu nahi izango ez balu, besteek auzitara eraman ahal izango lukete.

(Informazioa: Bergarako KIUB)

Oharra:

Joan zen astean kaleratutako 4. galderan, nahiz eta Agustin Aranzabal izena idatzi, Jesus Aranzabal Angiozarreko txirrindulari profesionalari buruz jarduten genuen. Jesus, eta ez Agustin. Barkatu despistea.

IRUBIDE TABERNA

Bazkariak, gosariak afariak, e.a.

URTEAGA 9 Tfnoa: 76 25 69

YAZKI

UME

Irizar 3
Tfnoa: 76 16 54

GAZTE

Ibargarai 8
Tfnoa: 76 54 73

OILAGORRA TABERNA

BARRENKALE 21 BERGARA

GIARTZU (M. Isabel) DERMOSTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupezazioa
Errekupegailu elektronikoa
Korrente Kapazitiboak

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Boni Laskurain 3, Beheak, Tfnoa: 76 35 71

Siaska

Dena zure haurarentzako


Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39
BERGARA

Hau dok barreguria

Nota txarrak ekarri zituan mutikuak eskolatik eta aittak hasarre:

- Da zer egingo dok hik ezpadakik eskribitzen?

- Ba, igual jata, telefonoa joko dot.



- Tabakua da zure hondamendixa. Erreko ezpaziñu honezkero palazio bat erosi zeinkien diru horrekin.

- Zuk eztozu erretzen?

- Ezta bape.

- Goazen orduan zure palaziua ikustera.

- Hi tontoarro, kerten, kalamidade bat haiz.

- Ze uste dok pa, heu bakarrik, ala?

Behin, goizero bezela Plaentziatik Eibarrera zijoian turkua errekadistia eta Maltzan eibartar gazte batek auto-stop egin zotsan.

- Turkua, Eibarrera eruingo dostazu?

- Bai, botaik gaiñera.

Eta Turkuak, gelditu barik aurrera jarraitu eban, gaztia aho bete hortzekin han lagata.

- Dozenatxo bat arrautza konbenturako...!-frailia hilero hilero fijo baserriko atian zakuakin. Hasarretu jako etxeoandria. "Hurrenguan entzun bia jostak entzutekon bat".

- Dozenatxo bat arrautza konbenturako...

- Eztaukagu ba. Oilluak mikatu ein jaku eta gizonak basuan die garotan.

J. M. Elexpuru


Bitorianatxo

"Sorgiña ei zan Bitorianatxo hori, eta lani-an ibiltzen ei zan etxeik etxe mantentze aldera. Behin, badiardue maixan, eta batzun batzuk haren zestua errejistantzen, da harek igarri: "Han, badabitz nere zestua errejistantzen batzun batzuk". Sorgiña ei zan da.

Baiña horrek sorgiñok eztakit nik; len sorgiñak ba ei zien. Behin, gabian andriak goruetan diarduala sartu da tximinixatik katua. Andria billurtu, da gizonai esan ei otsan hurrengo egunian: Billurtu eitten naiz, da katu bat etortzen da, ta eztot..." eta gizonak kontestau zotsan: "Bueno, neu jarriko naiz zure lekuan. Gizonorrek ba ei ziarduan goruetan, da sartu da katuoi, da andala: Katu horrek e esaten jao: "gizona izenda goruetan?" eta gizonak: "Katua izenda berbetan? Eta hartzen dau makillia eta jaurti jao, eta hankia apurtu katuai. Gero hurrengo zerian auzoko andria hankia apurtuta.

Etxia zan hantxe (San Kristobal inguruan), Mozolotegi zeukan izena, gaur desapareziduta dago, hantxe jaiotakua zala esaten eben Bitorianatxo. Bi kopeta holaxe aurrera zittuala, bi kopetakin ibiltzen zan. Gonia oso oso gorrixa erabiltzen ei eban, da paifolo zurixa hola kruzauta, eta gorontza. Len korseik eta etzan erabiltzen, eta gorontza kruzauta lotzen zan".

Benita Unamuno, Aldal baserrikoa. 86 urte.




MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA - IKASTETXEA

Heziketa Zentru Integratua.

IKASLE BAKOITZAREKIKO ARRETA.
HEZIKETA INDIVIDUALIZATUA.
TEKNOLOGIAREN SARRERA ETA HASTAPENAK.
IKERKETA METODOLOGIA.
IKASGELAKO ETA KANPOKO IKASKETA.

Deba Garaia eta inguruko eskualdeei irekitako Heziketa Proiektua:
24 herri desberdinetako ikasleek dihardute ikasketak burutzen zentru honetan.



BATXILERGO OROKORRA (REM)
eta
LANBIDE HEZIKETA (F.P.)

Izen ematea MAIATZAK 15etik 30era.

Erreformen (REM) aintzindariak, bost urtetako esperientzia daukagu. Lanbide Heziketa II SANITARIOA: "Gutxitu Psikikoen Hezitzaile" titulazioa.

✓ Jangela zerbitzua. ✓ Ikasleentzako egoitza.

Espaloia 1, BERGARA Tfnoa: 76 25 40 Faxa: 76 33 31



Hona hemen Oregui, Unzurrunzaga y Cia-ko langile izan zirenak. Gerra amaitu ondorengo lehen diezietxo de Julio"-a zen eta egun hartan langile eta ugazaba Arantzazun elkartu ziren bazkari eder bat egiteko. Hantxe ateratakoa da fotografixa hau.

Oregui, Unzurrunzaga y Cia-k kotoizko telak egiten zituen eta 1976an itxi zen.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak:

Ezkerretik eskumara:

1. ilaran, jarrita: Jose Maria Laskurain, Isidro Aranzabal, Eugenio Arriaran, Domingo Oregi, Prudencia Unzurrunzaga, Lorentza Azkorbebeitia, Teodora Eizagirre, Joaquina Azpiazu eta Felix Beitia.

2. ilaran: Jose Laskurain, Juan Jose Ausan, Benita Mujika, Dolores Altuna, Eusebia Usabiaga eta Margarita Garmendia.

3. ilaran: Ines Agirre, Mercedes Oregi, Blas Ugalde, Karmen Unzurrunzaga, Juanita Mujika, Rufino Bolibar, Maria Jesus Aranzabal, Lorenza Fernandez de Jauregi, Margarita Larrañaga eta Lorenza Zangitu.

4. ilaran: Pilar Madariaga, Emiliana Garitano, Martina Elorriaga, Toribio Etxeberria, Joaquina Elorza, ezezaguna, Juan Aseginolaza, Nicolasa Zangitu, Roman Zabaleta, Concepcion Lazpiur, Higinio Igartua, Karmen Ibarzabal, Sebastian Laskurain, Tomasa Lezeta eta Kandido Maiztegi.

Estepan Plazaola

Argazkia: Bixente Jauregi

TOKI-EDER

T a b e r n a
Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

LONBIDE

OINETAKOAK

BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA





ETXEBIZITZA

- Etxea alokatzen dut I-bargarain. Garajea eta trasteentzako lokala etxean bertan. Tfnoa: 761628
- Pisua salgai ortuarekin Zubieta kalean. Tfnoa : 76 4782
- Pisua behar dut alkilerrean. Tfnoa: 764255.
- Pisua behar dut alokairuan. 765837.
- Pertsona bat behar dugu Mizpildin pisua osatzeko. 765837.
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisua alkilatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan,

konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.

- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi dugu Bergaran.763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

- Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141

DENETARIK

- Ihauterietan galdutako argazki kamara badaukazu. Deitu: 763270. Sarituko da.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Soinu bat salgai. Deitu 764195era.
- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti.76-1201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai.Deitu: 862071era.

- Salgai ski eta bizikleta eramangailua; bi lokarri, eta erretenarekin 762852.

- Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. 770940 (lanorduetan).

- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9-retatik aurrera.

- Kolore biziko MBK mendiko-bizikleta berria salgai. 765580.

Hildakoak

- Jose Barrutia Laskurain*
79 urte, maiatzak 16an
- Agustina Recarte Lecuona*
Maiatzak 16an
- Fabriciano Blazquez Mora*
74 urte, maiatzak 16an
- Angela Azkargorta Gisasola*
80 urte, maiatzaren 20an
- Facundo Belastegi Larrañaga*
78 urte, maiatzaren 20an.
- Segundo Salaberria Azkarate*
82 urte, maiatzaren 22an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean

76 03 97

ALDAI

Harategia

Espaloia 12, Tfnoa: 76 33 35 BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

TALDE LANEAN INDARTSU



UDAL HAUTESKUNDEAK 1991

- | | |
|--|--------------------------------------|
| 1. Victoriano Gallastegi Altube | 13. Mikel Lete Txintxurreta |
| 2. F. Javier Gabilondo Gorosabel | 14. J.Ramon Berezibar Barrutiabengoa |
| 3. Luis Abajo alberdi (Inedep.) | 15. Arantza Ibarzabal Azkargorta |
| 4. Xabier Gallastegi Idigoras | 16. Iñaki Azkarate Bengoa |
| 5. Koldo Pereira Gonzalez | 17. Rafael Garmendia Agirre |
| 6. Andoni Larrañaga Mendizabal | 18. Agustin Lazpiur Lamariano |
| 7. Carlos Arrondo Odriozola | 19. Mertxe Elkoroberezibar Odriozola |
| 8. Xabier Zabaleta Unamuno | 20. Juan Luis Bilbao Abasolo |
| 9. Mila Lete Laskurain | 21. Yosu Agirrezabal Lete |
| 10. Luis Mari Gutierrez Elkoro | 22. M. Carmen Lete Lazpiur |
| 11. Carlos Gutierrez Oxinalde (Indep.) | 23. Jorge Ilzarbe Lombide |
| 12. Itziar Zabala Bilbao. | 24. Jon Mirena Leturia Berasategi. |



EMAN BOTOA